

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure bezeroak behin definituta edukita, beste erlazio batzuk garatzea garrantzitsua izango litzateke gure negozio-ideia aurrera eramateko.

Kontuan hartu behar dugu, sozietateekin aliantza bat adosteko, hainbat motatako estrategien helburuz izan daitekeela. Gure kasuan, lehiakideen arteko aliantza estrategikoak eta erosle-hornitzaile arteko harremanetako aliantza estrategikoak sortzea adostu dugu. Gure hornitzailetzat editorialak kontsideratuko ditugu. Hau da, beraiekin hitz egingo dugu haien liburuen lizentziak emateko.

Hala ere, beste enpresa batekin arteko elkarte aliantza izatea ezinbestekoa litzateke gure aplikazio informatikoa garatzeko, guk ez dugu informatika formakuntzarik-eta.

Gure negozio-ideia berriztatzailea denez, merkatuan sartuko gara kompetentzia oso altuarekin; beraz, gure konpetenteekin aliantza bat sortzea funtsezkoa izango litzateke. Aldi berean, haiek eskaini diezazkiguketen baliabideak erostera behartuta egongo gara, geroago guk saldu ahal izateko.

Hona hemen beste enpresekin egingo ditugun aliantza batzuen adibide batzuk:

- **La Kolmena.** Bizkaia barnean kokatuta dagoen enpresa bat da. Aplikazio informatikoak sortzen jarduten dute, eta guretzako ezinbestekoa litzateke haiekin erlazio komertzial bat garatzea.
- **ANAYA.** Madrilen kokatuta dagoen eta testu liburuak publikatzean jarduten duen editorial bat da.
- **ZUBIA.** Bizkaia barnean, Etxebarrin zuzeneki, dagoen euskarazko material didaktikoa editatu eta publikatzera eskaintzen duen editorial bat da.
- **SANTILLANA.** Amerika Latindarra eta Europan zehar hezkuntza arloan jarduten duen editoriala da.
- **OXFORD UNIVERSITY PRESS ESPAÑA.** Ingelesa eta frantsesezko testu liburuak eskaintzean lantzen duen editoriala da, Madrilen kokatuta.
- **MACMILLAN.** Heziketa elebiduna potentziaztean helburu duen editorial bat da. Enpresa honen ofizina zentralak Bartzelona eta Madrilen kokatuta daude, baina Espainia osoan zehar ordezkartzak ditu.
- **BIEDER ERANDIO.** Enpresa honek opari pertsonalizatuak saltzen aritzen dira. Erandion (Bizkaia) kokatuta daude, eta sustapenezko produktuak eskuratzeko funtsezko litzateke.

Oro har, Euskal Herrian formakuntza arloan jarduten duten editorial gehienekin aliantzak egingo ditugu. Gure proiektua gune lokalean hasiko dugunez, ikastola eta institutu gehienen liburu eta material guztia edukitzea dugu helburu-eta.

Azkenik, sustapenezko produktuak izan nahi ditugunez, produktu horiek salerosteko beste enpresa batekin aliantza sortu beharko dugu. Gure kasuan, Bieder Erandio enpresarekin aliantza adostu dugu.